

Patxi Azkonobieta, Urdaira sagardotegia

“Sagardo onak daude aurten”

Zer moduzko sagardoa duzue aurten?

Aurten sagardoak iaz baino azkarra-
goak, meheagoak izango dira. Sagar-
do onak daude. Iazko gorputzik ez
dute izango ordea, iazko berdinta-
sunikezta, kupel batetik bestera des-
berdintasun gehixeago iaz baino. Eta
hainbeste usain zaporea ez dute
izango. Aurten sagarra hala egokitu
da. Halere, gustura nago dauden
sagardoekin.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Krisi egoera honekin, ez dakigu ze
bezero mugimendu izango dugun.
Aurreko urteetan gazteri jendea gal-
du egin da. Denboraldi hau ere ilde
beretik joango delakoan nago. Beze-
ro gehienak ingurutik datozkigu;
Zarautz, Donostia, Lasarte, Usurbil
aldetik. Koadrila txikiak gehienbat.



Urtarrilaren 7tik maiatzaren 4ra irekia izango da txotx garaia.

Oinez datozen mendizaleak baita.
Hiru bat asteko tartea izaten dugu,
kanpotik etortzen dela jendea, Iru-
ñea, Gasteiz, Bizkaia aldetik, Iparral-

deko batzuk ere bai. Koadrila han-
diak kanpotik etortzen dira.

Zer berezitasun ditu Urdairan

eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Berezitasunetako bat kokagunea
dugu. Udaberrian dugun tokia bere-
zia da. Udaberrian ingurua zoraga-
rria izaten dugu. Horrez gain, maris-
koa jartzen dugu enkarguz sagardo-
tegian.

Gonbidatu bezeroak zuenera...

Aprobetxatu dezala garaia eta sagar-
do berria probatzera etor daitezela,
ia denen gustukoa den. Maiatzera arte
hemen izango gara.

Urdaira sagardotegia

Helbidea: Urdaira baserria, Agina-
ga.

Telefono zenbakia: 943 372 691.

Irekiera: urtarrilaren 7tik maiatza-
ren 4ra. Egutero afariak, eta jai guz-
tietan bazkariak baita. Igande gauak
eta astelehenak itxita.